

28/01/2010

## **Euskal Herria museoak tailerrak eskainiko ditu zapaturo, neguan**

Kultura

Umeak museora familiarekin joatea da helburua; eta astero gai konkretu bat landuko dute tailerrean.

o. cabelle

Tailerrak

Negua amaitu bitartean, tailerrak egingo dituzte zapaturo Euskal Herria museoan. Udazkenean egin zuten moduan, oraingoan ere museora familia osoak erakartzea du helburu ' Neguko larunbatak. Museora familiarekin! ' izeneko ekimenak.

Zapatu honetan hasi eta martxoaren 20ra bitartean, astero asgai bat landuko dute. 17:00etan hasiko dira, eta 4 eta 12 urtera arteko umei daude zuzenduta.

Izena eman behar da

Tailerrak doakoak izango dira, baina parte hartzeko alde zuzetik izena eman behar dela jakinarazi dute. Horretarako, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 94-625 54 51.

tailerrak

Hilak 30. Euskal kultura jokoak.

Otsailak 6. Euskal mitologia.Otsailak 13. Euskal kultura jokoak.

Otsailak 20. Jaun zuriaren kondaira.

Otsailak 27. Euskal kultura jokoak.

Martxoak 6. Altxorak eta mapak.

Martxoak 13. Euskal kultura jokoak.

Martxoak 20. Elkanoren abenturak.